

# **Hizkuntza**

## *Erabileraren* **neurketa**

**2019** | Donostiako Aste Nagusia  
Abuztuak 10-17

**bagera**  
Donostiako  
Euskaltzaleen Elkartea



#DONOSTIA  
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

**2019**  
*Aste Nagusia*  
*Semana Grande*  
*Donostia*  
*San Sebastián*  
*Abuztua 10-17 Agosto*



Jose Ramón Luna de la Osa

 donostiakultura

 DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



## 1. Sarrera

Azken hogeita bost urteetan, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusiko hizkuntza tratamendua aztertu du. Azterketa horrek euskararen erabilera areagotzea du ardatz, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidezkoa iruditzen baitzaigu, uneoro euskararen erabilera eta egoera ezagutzea.

Euskararen erabileraren neurketa egiteko orduan, kontuan hartu behar dugu Donostiaren egoera turistikoa udan zehar. Abuztuan zehazki, Donostiatik kanpoko jende ugari etortzen da. Hori dela eta, egitarauaren aniztasuna beharrezkoa ikusten dugun bezala, argi ikusten dugu euskarari merezi duen tokia eman behar zaiola, hots, gutxienez gazteleraren pareko presentzia izan behar duela eta hizkuntza gutxitua den heinean lehentasunezko trataera behar du.

## 2. Metodologia

Aste Nagusiak bere gain hartzen dituen jarduerak nahiz idatzizko euskarriak neurtzen saiatu gara.

**Ahozko erabilerari** dagokionez, jardueren hizkuntza erabilera neurtzeko orduan 3 ezaugarri kontuan hartu ditugu: aurkezpena izan duen, ekintza berak hizkuntza duen eta dinamizatzailea izan den kasuetan zein hizkuntza erabili den. Hiru ezaugarri hauek kontuan hartuta oro har zein hizkuntza erabili den eta bakoitza zein neurritan erabili den bildu dugu txostenean.


## 3. Hizkuntza erabileraren neurketa

Aurten Bagera Elkartek hizkuntza erabili duten 109 ekintza behatu ditu honako irizpideak kontutan hartuta:


- Ekintza bat astean zehar behin baino gehiagotan errepikatzen den arren, ekintza behin bakarrik adieraziko da neurketan.
- Neurketa egiterako orduan, hizkuntza erabili duten jardueren behaketa bakarrik kontutan hartu da.
- Ele bitan egin dela adierazten denean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz neurri berean erabili dela esan nahi dugu. "BH" laburdura erabiltzen dugunean "beste hizkuntza" batean egin dela adierazi nahi dugu (edo euskara edota gazteleraz gain beste hizkuntzaren bat erabili dela). Euskaraz, berriz, jarduera euskaraz edo euskarak lehentasuna izan duela eta gazteleraz, gazteleraz edo gaztelerak lehentasuna izan duela.



**Hizkuntza erabileraren neurketaren emaitza orokorra:**



**Hizkuntza erabileraren neurketa hauren ekintzak kontuan hartu gabe:**





Aurreko irizpideak kontutan hartuta, Donostia Kulturak antolatutako ekitaldien eta beste elkarte / eragile / enpresek antolatutako ekitaldien arteko bereizketa ere egin da.


Hizkuntza erabili duten jardueren %69,72a Donostia Kulturak antolatuak izan dira eta %30,28a beste elkarteek antolatutakoak izan dira.

### 3.7. Donostia Kulturak antolatutako jarduerak

Donostia Kulturak antolatu dituen ekitaldietan, **aurkezpenei dagokionez**, zenbait guneetan hiru hizkuntzetan grabatutako aurkezpenak izan dira. Hala nola: Gaueko musika emanaldietan (Kursaaleko Terrazan, Saguesen, Easo Plazan eta Bulebarrean), antzerki emankizunen aurretik (Gipuzkoa Plazan), Ondarretako ikuskizunetan eta Bulebarreko kioskoan antolatutako arratsaldeko emankizunetan. Baita Aitzol parkean, Katalunia plazan eta Antigua antolatutako zenbait emanalditan ere.

Hasierako agurra eta amaierakoa, euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez izan dira. Edukia euskaraz eta gazteleraz.


**Ekintzen hizkuntzari** erreparatuz gero, hizkuntzarik erabili ez duten ekintzak kenduta, ondoko datu hauek bildu ditugu:



**Ahozko hizkuntzari dagokionez, hauren ekintzak kontutan hartzen ez baditugu neurketaren emaitzak asko aldatzen dira.**

Antolatutako ekintzen erdia baino gehiago gazteleraz izan dira (%53,45):

- Gazteleraz.....%54,24 (32 ekintza)
- Euskaraz.....%27,12 (16 ekintza)
- Beste hizkuntza bat.....%13,56 (8 ekintza)
- Bi hizkuntzatan.....%5,08 (3 ekintza)



#### Hona hemen sailez sail egindako hizkuntza neurketaren emaitza:

**Kirol** atalean, aurten 5 jarduera behatu ditugu. Horietatik 3 euskaraz (edo euskara gehiago erabili da) eta 2 gazteleraz (edo gazteleraz gehiago erabili da) izan dira. Gazteleraz izandakoen artean, urtero errepikatzen diren zaldi lasterketak.

Bestetik, Kirol inklusiboaren jaia ele bitan izan bada ere euskarari lehentasuna eman zaio. Euskaraz %60 eta %40 gazteleraz.

**Folklore** emanaldiei dagokienez, 5 jarduera behatu ditugu. Hauetatik, 4 euskaraz izan dira (bertsolarien emanaldiak eta herri dantza) eta 1 gazteleraz (jotak). %80 euskaraz eta %20 gazteleraz.

**Musika** atalean, Sagueseko, Bulebarreko eta Kurasaaleko zenbait emanaldietan, grabatutako aurkezpenak hiru hizkuntzatan izan dira. Orotara, 41 musika ekimen behatu ditugu, 24 gazteleraz, 8 beste hizkuntza batean, 6 euskara hutsez eta 3 ele bitan. %58,54 gazteleraz, %19,51 beste hizkuntza batean, %14,63 euskaraz eta %7,32 ele bitan.

**Antzerkia** atalean, hizkuntza erabili duten 5 ikuskizun eskaini dira. Horietatik 4 Gipuzkoa Plazan (3 euskaraz eta 1 gazteleraz) eta 1 Katalunia plazan gazteleraz. %60 euskaraz eta %40 gazteleraz.

**Zinema** atalari dagokionez, Donostia Kulturak antolatutako 3 emanaldi izan dira Tabakalera. Guztiak jatorrizko bertsiotan eta gazteleraz azpidatziak. %100 gazteleraz.



**Besteak** atalean, zezenketak sartu ditugu. %100 gazteleraz.

**Haurren** atalean, aurkezpenari baino haur jaialdiaren hizkuntza garapenari eman nahi dio garrantzia Bagerak. Urtero aipatzen dugun moduan, BAGERA Elkartearen iritziz, haurren ekintzetan parte hartzen duten begiraleek euskararen sustatzaile izan beharko lukete eta horretarako baliabideak eskaini behar zaizkie.

Aurten, Katalunia plazan, "jolas eta kirol tailerrak" antolatu dituzte egunero. 3 begirale egon dira. Tailerraren ardura nagusia, edo gehien hitz egiten zuena, begirale euskalduna zen eta erabiltzaileen hizkuntzaren arabera aritu dira.



Bestelako tailerretan, parte hartzaileen arabera izan da hizkuntzaren erabilera.






Hutsunea "Txiki Chef" tailerrean topatu dugu. Programan euskaraz jartzen zuen arren gazteleraz izan da.

Bestelako ikuskizunak euskaraz izan dira.

**Gazteei** dagokienez, oso positibotzat jotzen genuen ekimen bat aurten ez da egin. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Donostiako Aste Nagusian gazteentzako sortutako eremuan (Kursaaleko Urumea terrazan) euskara areagotzeko "**Festan Blai!**" ekimena. Ekimen honen helburua, Kursaaleko DJ emanaldien testuinguruan, gazteen artean euskararekiko motibazioa sustatzea zen modu ludiko baten bidez. Aurten ez denez egin euskararen presentzia behera egin duela nabaritu dugu. Gune horretan aritzen diren dj-ekin lanketa berezia egiten jarraitu beharko litzatekeela uste dugu eta Dj euskaldunak izatearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

**Hizkuntzaren erabileraren neurketen emaitzen grafikoak sailez sail:**









### 3.8. Beste elkarteek antolatutakoak


#### Ahozko erabileraren azterketa

Aurten beste elkarteek antolatutako 33 ekintza behatu ditugu.

Hizkuntza era garrantzitsu batean erabili ez duten ekitaldiak kenduta ondoko datu hauek neurtu ditugu ekintzen hizkuntza erabilerari dagokionez:

Gazteleraz..... %54,55 (18 ekintza)  
**Euskaraz..... %27,27 (9 ekintza)**  
 Bi hizkuntzatan .....%18,18 (6 ekintza)

Donostia Kulturatik aparte elkarte/eragileek/enpresek antolatutako jardueretan gaztelera gailendu da. Ekintzen erdia baino gehiago gazteleraz izan dira.



#### **Hona hemen sailez sail egindako hizkuntza neurketaren emaitza:**

**Kirol** atalean, aurten 16 jarduera behatu ditugu. Horietatik, 9 gazteleraz (edo gazteleraz gehiago erabili da), 4 euskaraz (edo euskara gehiago erabili da) eta 3 ele bitan izan dira. Gazteleraz izan diren ekimenen artean urtero errepikatzen diren hainbat ekintza daude. Hala nola, Tai-ji (Fortuna), 3X3 basket txapelketa (Askatuak), Saskibaloia festa (Askatuak), haurrentzako eskrima (Fortuna) eta hondartzako boleibola (Bera Bera).

Bestetik, *Aste Nagusia sasoiarekin hasteko* Bera-Bera kirol elkarteak antolatutako



zumba jaian eta "Gaua piztu" lasterketan gaztelera gailendu da nabarmen.

Waterpolo Donostia taldeak antolatutako waterpolo erakustaldi eta txapelketetan, bi hizkuntzak erabili diren arren, askotan gaztelerrari eman zaio lehentasuna.

Euskaraz gailendu diren kirol ekintzen artean, berriz, Katalunia plazan Bera Bera kirol elkarteak haurrentzako antolatutako "jolas eta kirol" tailerrak, Gipuzkoako Xake Federazioak antolatutako Xake mate fibrosi kistikoari opena eta Alde Zaharreko kirol elkarteak Trinitate plazako frontoian antolatutako euskal pilotaren jarduerak daude.

**Folklore** emanaldiei dagokionez, jarduera bakarra egon da Herri dantza taldeak antolatutakoa eta euskara hutsez egin dute (Euskal muxikoak).



**Zinema** atalari dagokionez, Ondarretan Super Amara supermerkatuaren laguntzaz izan diren 5 emanaldietatik 4 gaztelerez izan dira eta bakarra euskaraz. 5 filmak gaztelerezko azpidatziekin.





**Besteak** atalean, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak eta Euskaltelek antolatutako bizikleta festan eta Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioak antolatutako goitibehera ekintzetan euskaraz lehentasuna izan du. Itsas zaborra out ekintza ele bietan izan da (begirale gehienek euskaraz zekiten, eta ekintza egin aurretik ze hizkuntza erabili nahi zuten galdetzen zuten). Azkenik, Donostiako Piraten abordaia euskaraz izan da.

Lehiaketak atalean, 5 jarduera gastronomiko eta kirol jarduera bat behatu ditugu. Gastronomi lehiaketei dagokionez, 3etan elebitasuna bermatu da, euskaraz lehentasuna izanik. Hala nola, Paella lehiaketan, Gazteen gastronomi lehiaketan eta Marmitako lehiaketan. 2 kasuetan, berriz, gaztelera izan da nagusi. Tele Donostik urtero antolatzen duen Tortilla patata lehiaketan eta Super Amarak antolatutako Menestra lehiaketan.

Arrantza lehiaketaren kasuan ere, gaztelera izan da erabili den hizkuntza.

**Hizkuntzaren erabileraren neurketen emaitzen grafikoak sailez sail:**





#### 4. Oro har

Behatutako jarduera guztiak kontutan hartuta sailez sail hizkuntzaren erabileraren neurketa:







	<b>Kirola</b>	<b>Musika</b>	<b>Antzerkia</b>	<b>Zinea</b>	<b>Folklore</b>	<b>Lehiaketak</b>	<b>Besteak</b>	<b>Haurrak</b>
<b>Euskaraz</b>	%33,33	%14,63	<b>%60</b>	%0	%83,33	%0	<b>%60</b>	<b>%94,12</b>
<b>Gaztelera</b>	<b>%57,14</b>	<b>%58,54</b>	%40	<b>%87,50</b>	%16,67	%50	%20	%5,88
<b>Bi elean</b>	%9,53	%7,32	%0	%12,50	%0	%50	%20	%0
<b>BH</b>	%0	%19,51	%0	%0	%0	%0	%0	%0



*Oharra:*

*Haurren kasuan, antolatutako tailerretan parte hartzaileen hizkuntzaren araberakoa izan da erabilera.*



**Grafikoak sailez sail:**





**Behatutako jardueren zerrenda:**

Oro har				
Jarduera	Saila	Nork antolatua	Oro har	Auzoa
Turistreando	Antzerkia	DK	Gazteleraz	Erdialdea
In concert	Antzerkia	DK	Euskaraz	Erdialdea
Zinemaz blai	Antzerkia	DK	Euskaraz	Erdialdea
Baserriko porrusalda	Antzerkia	DK	Euskaraz	Erdialdea
Magic spectacular	Antzerkia	DK	Gazteleraz	Gros
Zezenketak	Besteak	DK	Gazteleraz	Amara Berri
Itsas-zaborra out	Besteak	Cd Irutxulosub De Actividades Subacuáticas De San Sebastián	Ele bitan	Parte Zaharra
Bizikleta Festa	Besteak	Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa Eta Euskaltel	Euskaraz+	Erdialdea
Piraten baltsen muntaketa	Besteak	Donostiako Piratak	Euskaraz	Parte Zaharra
Goitibera jaitsiera	Besteak	Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioa	Euskaraz+	Zuatzu
Voces Navarras	Folklore	DK	Gazteleraz	Parte Zaharra
Bertsolariak	Folklore	DK	Euskaraz	Amara
Euskal muxikoak	Folklore	Herridantza Dantza Taldea Elkartea	Euskaraz	Erdialdea
Bertsolariak	Folklore	DK	Euskaraz	Amara
Bertsolariak	Folklore	DK	Euskaraz	Amara
Herridantza	Folklore	DK	Euskaraz	Amara
Hator magiara	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
Txiki Chef tailerra	Haurrak	DK	Gazteleraz*	Amara
Dj Kaktus	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
MAGIklow	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros



<b>Gezur gehigi</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Jolas mundua</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Erdialdea
<b>Azken balea</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Girotu plaza!</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Antigua
<b>Kalean otso, etxean uso</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Ipuin Magikoak</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>DJ Kaktus</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Ipuin majikoak</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Azken Balea</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Munduak eramatea</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Kalean otso, etxean uso</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>MAGIklown</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Gezur gehiegi Magia eta komedia</b>	Haurrak	DK	Euskaraz	Gros
<b>Haurrentzako eskrima</b>	Kirola	Cd Fortuna	Gaztelerez	Amara
<b>Urrezko kopa. Aizkolariak</b>	Kirola	DK	Euskaraz*	Parte Zaharra
<b>Zunba jaia</b>	Kirola	Bera Bera	Gaztelerez	Erdialdea
<b>Saskibaloia festa</b>	Kirola	Askatuak	Gaztelerez	Amara
<b>3X3 basket txapelketa</b>	Kirola	Askatuak	Gaztelerez+	Erdialdea
<b>Futbol mistoa</b>	Kirola	Fortuna	Gaztelerez	Amara
<b>Barrene</b>	Kirola	Alde Zaharra Ke	Euskaraz*	Parte Zaharra
<b>Euskal pilota ikastaroa</b>	Kirola	Alde Zaharra Ke	Euskaraz*	Parte Zaharra
<b>Zaldi lasterketa. Urrezko kopa</b>	Kirola	DK	Gaztelerez	Loiola
<b>"Gaua piztu" gau lasterketa</b>	Kirola	Bera Bera	Gaztelerez+	Erdialdea
<b>Waterpolo erakustaldia</b>	Kirola	Waterpolo Donostia	Ele bitan*	Erdialdea
<b>Tai-Ji</b>	Kirola	Fortuna	Gaztelerez	Amara
<b>Jolas eta kirol tailerrak</b>	Kirola	BERA-BERA RT	Euskaraz*	Gros
<b>Emakumeen waterpolo torneoa</b>	Kirola	Waterpolo Donostia	Ele bitan*	Erdialdea
<b>Erdi Aroko eskrima tailerra</b>	Kirola	Cd Fortuna	Gaztelerez	Gros
<b>Igeldoko harria</b>	Kirola	DK	Euskaraz*	Parte Zaharra
<b>Kirol</b>	Kirola	DK	Euskaraz+	Parte Zaharra



<b>inklusiboaren jaia</b>				
<b>Hondartza-boleibol</b>	Kirola	Bera Bera	Gaztelera+	Gros
<b>Zaldi lasterketa</b>	Kirola	DK	Gaztelera	Loiola
<b>Eskrima erakustaldia</b>	Kirola	CD Fortuna	Gaztelera	Gros
<b>Xake mate fibrosi kistikoari opena</b>	Kirola	Gipuzkoako Xake Federazioa	Euskaraz+	Erdialdea
<b>Arkume menestra lehiaketa</b>	Lehiaketa	Super Amara / Aa.Vv. Amara Berri / Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren Atala	Gaztelera*	Amara
<b>Paella lehiaketa</b>	Lehiaketa	Bm Supermercados / Itxas Gain Elkartea / Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren Atala	Ele bitan*	Gros
<b>Patata tortilla lehiaketa</b>	Lehiaketa	Tele Donosti	Gaztelera	Aiete
<b>Marmitako lehiaketa</b>	Lehiaketa	Gaztelubide / Bm Supermercados / Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren Atala	Ele bitan*	Erdialdea
<b>Arrantza lehiaketa</b>	Lehiaketa	Gipuzkoako Arrantza Federazioa	Gaztelera	Hainbat
<b>VIII. Gastronomi lehiaketa gazteentzat</b>	Lehiaketa	Cofradía Vasca De Gastronomía / Eroski / Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren Atala	Ele bitan	Parte Zaharra
<b>Anita Parker</b>	Musika	DK	Euskaraz	Erdialdea
<b>Tosta</b>	Musika	DK	Hainbat	Parte Zaharra
<b>Lola Indigo</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Agirren orkestra</b>	Musika	DK	ele bitan	Amara
<b>Olana liss</b>	Musika	DK	Ingelesez+	Erdialdea
<b>Mojo hand band</b>	Musika	DK	Ingelesez	Erdialdea
<b>Tropicana son orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>Flores</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Festa! Dj Bengoa</b>	Musika	DK	Hainbat	Amara
<b>Noa &amp; The Hell Drinkers</b>	Musika	DK	Ingelesez	Antigua
<b>Ainhoa Larrañaga</b>	Musika	DK	Euskaraz	Gros
<b>Mariachi imperial elegancia</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Hombres G</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Festara!</b>	Musika	DK	Ele bitan	Amara, Antigua, Gros, Parte Zaharra

**bagera**Donostiako  
Euskaltzaleen Elkartea

<b>Puro relajo</b>	Musika	DK	Gaztelera	Erdialdea
<b>Sambastian</b>	Musika	DK	Portugesez	Gros
<b>Los cinco bilbainos</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Macaco</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Carisma</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>Bebe</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Suaia eta Ama Rebel</b>	Musika	DK	Euskaraz	Erdialdea
<b>Yo Ciervo</b>	Musika	DK	Ele bitan	Gros
<b>Carlos Tarque</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Jim Beans</b>	Musika	DK	Ingelese	Gros
<b>Stylo orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>Super panela orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Erdialdea
<b>Huntza</b>	Musika	DK	Euskaraz	Gros
<b>Esne Beltzak</b>	Musika	DK	Euskaraz	Gros
<b>Alex ubago</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Dupla</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Kora Senegal</b>	Musika	DK	BH	Gros
<b>Tsunami orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>Grupo imperial</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>Yero company &amp; Jon Vazquez</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Noche de baile</b>	Musika	DK	Gaztelera	Erdialdea
<b>Ezten giro</b>	Musika	DK	Euskaraz	Antigua
<b>Maren</b>	Musika	DK	Gaztelera/ingelese	Gros
<b>Sole Gimenez</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Azabache orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>¡A guuuussto!</b>	Musika	DK	Gaztelera	Gros
<b>Rally deluxe orkestra</b>	Musika	DK	Gaztelera	Amara
<b>La La Land</b>	Zinea	Super Amara	JB Gaztelaniaz, Azpidatziak euskaraz	Antigua
<b>El temible burlón</b>	Zinea	Super Amara	JB Gaztelera, azpituloak gaztelera	Antigua
<b>Aupa Etxebeste</b>	Zinea	Super Amara	JB euskaraz, azpituloak gaztelera	Antigua
<b>Fokoak: Bara no sôretsu</b>	Zinea	Tabakalera	JB JAP-EN, Azp ES	Egia
<b>Mamma mia</b>	Zinea	Super Amara	JB gaztelera, azpidatziak gaztelera	Antigua






<b>Infierno Azul</b>	Zinea	Super Amara	Gaztelera, azpidatziak gaztelera	Antigua
<b>Fokoak: klasiko zaharberriak</b>	Zinea	DK	JB Ingelese, Azpidatziak gaztelera	Egia
<b>Dragon Inn</b>	Zinea	DK	JB MAN , Azp ES	Egia

### Hizkuntza erabileraren garapena:

Aste Nagusian antolatu diren jardura guztiak kontuan hartuta, honakoa izan da hizkuntza garapenari dagokionez atera ditugun emaitzak.



	2003	2004	2007	2010	2011	2012	2014	2015	2016	2017	2019
<b>Euskaraz</b>	32,14	30,67	16,49	17,69	18,47	34,15	43,38	34,48	31,61	30,32	37,61
<b>Gaztelera</b>	45,24	41,33	54,26	62,58	47,77	42,28	32,35	37,93	37,42	35,64	46,79
<b>Ele bitan</b>	20,24	16,00	28,19	10,89	12,10	10,57	15,44	17,24	16,77	18,61	8,26
<b>BH</b>	2,38	12,00	1,06	8,84	21,66	13,00	8,83	10,35	14,20	15,43	7,34

### Urteetako hizkuntza garapenaren irakurketa:

Hamazazpi urteetako hizkuntza erabileraren bilakaera kontutan hartuta, euskararen garapenari erreparatuz gero, gorabehera izan ditu grafikoak erakusten digun moduan.

2003an euskarak (edo euskarak lehentasuna) izan zuten jardueren ehunekoa, hamazazpi urte ondoren, ia bost puntutan igo egin da. Aipatzekoa da, bestetik, 2007an euskarak beherakada nabarmenena izan zuela. %16,49a izan zen euskararen erabilera Aste Nagusiko jardueretan eta urte horretatik aurrera euskarak lehentasuna izan duten jardueren goranzko joera izan zuten 2014ra arte (urte horretan euskararen erabilera



urteetako handiena izan zen) baina 2015-2017 artean jaitsiera nabarmena izan zela ikusten dugu. Azken bi urteetan, berriz, euskarazko jarduerak goranzko joera hartu dute.

Gazteleraz gailendu diren jardueren datuei erreparatuz gero, 2010ean izan zuten gorakadarik handiena (%62,58) eta urte horretatik aurrera beheranzko joera izan dute 2014 urtera arte (%32,35). 2015ean, aldiz, gaztelerazko jarduerak gora egin zuten eta aurten igoera nabaria izan da (%46,79).

Ele bitan (euskara eta gaztelera) egin diren jardueratan gorabehera handiak izan dira urtetik urtera. 2007an ele bitan egin ziren jarduerak izan zuten ehuneko handiena (%28,19). Hurrengo urtean jaitsiera handienetakoa izan zuten eta 2012tik 2017ra goranzko joera izan zuten arren behera egin dute berriro ere.


Azkenik, beste hizkuntza bat erabili duten jarduerak urtetik urtera datuak oso aldatzeko izan dira baina azken 3 urteetako joera beheranzkoa izan da.

### Laburbilduz, Donostiako Aste Nagusian 2019an hizkuntza erabileraren neurketa

Haurren ekintzak kenduta, euskararen erabileraren datuak asko aldatzen dira hasierako grafikoan ikusten den moduan.

Donostiako Aste Nagusia 2019	Gazteleraz	Euskaraz	Ele bitan	BH
Oro har	%46,79	%37,61	%8,26	%7,34
<b>Haurren ekintzak kenduta</b>	<b>%53,26</b>	<b>%28,26</b>	<b>%9,78</b>	<b>%8,70</b>

Guneei dagokienez, positibotzat jotzen dugu euskara guneez ezberdinetara hedatu delako eta aurten ere mantendu direlako baina guneez askotan euskarak oso presentzia txikia jarraitzen du izaten. Hala nola, Easo plazan (gaueko 7 dantzaldietatik bakarra izan da ele bitan. Beste 6 dantzaldiak gazteleraz izan dira), Sagueseko kontzertuetan (9 kontzertuetatik bi izan dira euskaraz beste 7ak gazteleraz), Bulebarreko kioskoan izan diren gaueko musika ekitaldietan (7 emanalditik 2 euskaraz, 3 gazteleraz eta 2 ingelesez izan dira), Katalunia plazako gauetan (ez da euskararen presentziarik egon. 3 gazteleraz eta 1 beste hizkuntza batean).





Aipagarria da, Parte Zaharreko Plaza Berrian (konstituzio plazan), gaueko erromeriak azken bi urteetan ez direla egon.

Beste hutsuneetako bat Ondarretan Super Amara supermerkatuaren laguntzaz izan diren 5 filmetan ikusi dugu. 5 emanaldietatik 4 gazteleraz izan dira eta bakarra euskaraz. 5 filmak gaztelerazko azpidatziekin.

Lehiaketetan, aldiz, urtero azpimarratzen dugun Tele Donostik antolatzen duen Tortilla patata lehiaketan.

Gazteen arloan euskaraz sustatzeari begira, Kurasaaleko gunean antolatzen zen "Festan blai!" ekimena orain arte oso ongi baloratu izan du Bagera Elkartek gazteen artean euskara sustatzeko zeharkako ekimen moduan baina aurten ez da egin. Bagera Elkartetik Donostiako Udala horrelako ekimenak antolatzen eta sustatzen jarraitzea animatu nahi dugu.

Bestalde, positibotzat jotzen dugu Aste Nagusiko hasierarekin programatutako "Gazte Nagusi Holi Fest". Bertako dinamizatzaileak euskaraz aritu zirelako nagusiki.

Eragileek antolatutako ekintzetan, aldiz, gaztelerarako joera izan da nabarmen eta hori kezagarria iruditzen zaigu.

Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua, Udaletik, Aste Nagusian parte hartzen duten eragileekin elkartzea eta hizkuntza irizpideak markatzea. Bide horretan, aurretik egin behar den lanketa ezinbestekoa dela deritzogu (iragarleekin hitz egin, ekintzen arduradunekin, antzerkiak kontratatzerakoan, haurren ekintzetako hezitzaileekin, elkartetako arduradunekin ...) eta aipatu bezala hizkuntza irizpideak markatzeaz gain baliabideak eta tresnak eskaintzea euskararen erabileran eragiteko.

Jaietan ere, Donostiako Udalak eragileekin elkarlanean, hizkuntza ohituretan eta erabileran eragiteko testuingurua sortzen jarraitzea berebiziko garrantzia du, Donostian euskararen erabilera areagotu dadin.